

# Zaporeak. Elkartasuna elikatzen

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

Ariketa-sorta honetan, Zaporeak proiektuari buruz hitz egingo dugu. Horretarako, hainbat ariketa egiteko aukera izango duzu:

- Gaiari sartzeko galderari erantzun.
- Bideoa ulertu eta galderei erantzun.
- Testua irakurri eta erreparatu hitz konkretuei.
- Boluntario izatearen alde onak eta txarrak zein diren hausnartu.



## 1- Errefuxiatuak

*Zaporeak proiektua zer den azaldu aurretik, jarri binaka eta erantzun galderari:*

Errefuxiatuen egoerari buruzko irudi asko ikusi ditugu komunikabideetan... Baduzu baten bat gogoan? Deskribatu (ez bazara oroitzen, deskribatu beheko irudietako bat).



## 2- Zaporeak proiektua

*Ikusi Oraitz Garcia Zaporeak proiektuko kideari egindako elkarrizketaren bideoa eta erantzun galderei:*

1. Zer da Zaporeak proiektua?

2. Zaporeak bi egitasmo ditu martxan, zein?

3. Zer gertatzen da orain errefuxiatuen gaia komunikabideetan hainbeste ikusten ez dugunean?

4. Zein da Lesboseko errefuxiatu-zelaiaren egoera?

5. Euskal Herrian borondatezko lana egiten dugu?



## 3- Testuaren lanketa

*Testua irakurri bitartean, nabarmenduta dauden egiturei erreparatu eta zer adierazi nahi duten irudikatu.*

### Zaporeak proiektua: janari duina errefuxiatuentzat

Zaporeak proiektua gastronomia eta elkartasuna uztartzen dituen elkarte bat da. Donostiako Intxaurren auzoan sortu zuten, nahiz eta Euskal Herri osora zabaltzen ari diren gaur egun. Boluntarioz osatutako talde bat da, eta elikatzeko beharra edo bestelako premiak dituzten herrialdeetako pertsonei laguntzen die. Etiopian hasi zuten ibilbidea 2011. urtean, zehazki Wukro izeneko herrian. Han, Angel Olaran Aita Zuri hernaniarrarekin batera, Ostalaritza eta Gastronomiako Eskola, kontserbategia eta gaztandegia abiatzea zuten helburu. “Zazpi urteren ostean, oraintxe bidaliko dugu eskola muntatzeko materiala”, kontatu digu Oraitz Garcia egitasmoko kideak. Afrikako herrialde horretan bakarrik ez, 2015. urtetik aurrera, Grezian ere ari da lanean Zaporeak proiektua, bertara iristen diren errefuxiatu edo iheslariei “era goxo eta duinean” jaten emanez. Elkarrekin Donostian duen egoitzan elkarriketatu dugu Oraitz Garcia.

#### 1. Greziara iristen diren errefuxiatuei buruz gauza asko irakurri eta entzun ditugu. Hala ere, une honetan ez ditugu komunikabideetan gehiegi ikusten.

Ikusten ez baditugu ere, hor daude eta laguntza behar dute. Gure lana **bozgorailua izatea** ere bada eta jendearen laguntza behar dugu gure erantzuna ematen jarraitzeko. Grezian gobernu kanpoko erakundea izatea lortu dugu eta hainbat lekutan egon gara: Kiosen hasi ginen, Atenasen gero eta Lesbosen gaude orain. Hiru urte hauetan, 500 boluntario inguruk lagundu digute eta ia milioi bat otordu banatu ditugu iheslarien artean. Horretan lanean jarraitzeko asmoa dugu.



#### 2. Iritsi zinetenetik aldaketarik sumatu duzue hango egoeran?

Hasierako gure helburua sei hilabetez aritzea zen eta jada hiru urte daramagu. Zaporeak egitasmoa asko handitu da; horretarako, jendearen laguntza ezinbestekoa izan da eta hala da gaur egun ere. Epe motzean ez dut konponbiderik ikusten; izan ere, Sirian gerrak jarraitzen du eta **errefuxiatuen uholdeak** iristen ari dira oraindik ere. Lotsagarria da armadak eta catering-enpresek nolako elikagaiak ematen dizkieten; horregatik, askotan zakarretara bota behar izaten dituzte. Catering-enpresa horiek dirua irabazten dute iheslariei janaria banatzeagatik. Gu goxotasuna ematen saiatzen gara beti, kezkatzen garela ikus dezaten.

#### 3. Nola jarri zenuten martxan Zaporeak proiektua?

Intxaurrendoko elkarteko kideok gastronomiarekin lotutako hainbat gauza antolatu izan ditugu, eta, Grezian errefuxiatuekin gertatzen ari zena ikusita hara joatea erabaki genuen. Hasiera hartan, proiektuko boluntarioak zazpi erretiratu eta ni soilik ginen. Lehenengo bidaia hartara lau joan ziren eta 800 otordu

prestatu zituzten. Ondoren, boluntarioak lortzeko deialdiak egiten hasi ginen, proiektuari bultzada emateko. Sarean zabaltzeari esker, Kiosen egon ginen urtebetean boluntario asko igaro ziren: 15 eta 20 pertsona arteko taldeak izaten ziren eta, bidaia eta egonaldia geuk ordaintzen genizkien. Horiez gain, batzuk beren kabuz joaten ziren, gure hiru asteko egonaldiak luzeegiak zirelako, eta zeuzkaten egunak gurekin pasatzen zituzten. Jende guztia ongietorria da.

#### 4. Edonor izan al daiteke boluntarioa?

Guk ez dugu baldintza berezirik eskatzen, ezta sukaldaritzari buruzko jakintzarik ere. Lana egiteko gogoia eta jarrera egokia, horiexek behar ditugu. Azken batean, sukaldeko lana gogorra da: zazpi edo zortzi orduz aritu behar izaten dugu, hogeita bat egunetan. Zaporeak proiektuaren bidez, boluntarioek iheslariekin zuzenean lan egiteko aukera dute; horrela, lan gogorraren ondoren, behar duenari otordua eskuetara ematen diogunean, esker-hitzak, begiradak, irribarreak... jasotzen ditugu.

Une honetan, aldiz, aldaketak egiten ari gara antolaketan; hiru urte nekagarri izan dira eta profesionalizatzea erabaki dugu; jendea soldatapean hasi da lanean, baina **proiektuaren bizkarrezurra** boluntarioek izaten jarraitzen dute, beraiek baitira gure eskuak eta arima. Lan gogorra, baina aberasgarria da.

#### 5. Zer egin behar du parte hartu nahi duenak?

Bi aukera daude: batetik, Greziara joatea; eta, bestetik, hemengo lana egitea. Egia da gehienek kanpora joan nahi dutela, zuzenean lagundu eta hango errealitatea ikusteko. Hala ere, argi izan behar dugu hori ezinezkoa dela hemengo lanik egin gabe.

Arropa-bilketa egin genuen duela gutxi, eta arropa hori antolatzen laguntzeko deialdia egin dugu. Parte hartu nahi duenak atek irekita ditu; [www.zaporeak.eus](http://www.zaporeak.eus) webgunean boluntario-fitxa betetzeko aukera du.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet laguntzen digutenei. Besteak beste, Fagor eta Lacor enpresei sukaldeak muntatzeko materiala musu-truk eman digutelako, eta Irungo Argitrans garraio-enpresari, elikagaiak Greziara doan bidaltzeko aukera luxu bat delako guretzat.

*Hiru hitzek testuan duten esanahaia zein den idatzi esaldi batean:*

Bizkarrezurra:

Uholdea:

Bozgorailu:





## 4- Izan zaitez boluntario

**www.zaporeak.eus** webgunean sartu eta begiratu boluntario-fitxan zer eskatzen duten.

Proiektuaz ikasi duzuna kontuan hartuta, animatuko zinateke bertan izena ematera? Eztabaidatu zure ikaskideekin, eta boluntario-lanetan aritzeko aldeko eta kontrako argudioak apuntatu.

Amaieran, ikusi zein argudio izan diren nagusi gelan.

### ADIBIDEZ

- Nik ez nuke proiektu honetan parte hartuko, izan ere, arrisku handiegia dela iruditzen zait gune horietan laguntzen ibili beharra.
- Ez nator bat zurekin. Nire ustez, oso garrantzitsua da Zaporeak bezalako proiektuei laguntzea. Nik, hala ere, Greziara joan baino nahiago dut hemendik lagundu.



ALDEKO ARGUDIOAK	KONTRAKO ARGUDIOAK

## 2- Zaporeak proiektua

### 1. Zer da Zaporeak proiektua?

2011. urtean sortu zen elkartasun proiektu bat da eta, sukaldaritzaren bidez, elikadura behar duten pertsonen laguntzea dute helburu.

### 2. Zaporeak bi egitasmo ditu martxan, zein?

Lehenengoa Etiopian Ostalaritza eta Gastronomia eskola bat sortzea eta, horretarako, materiala bidali dute duela gutxi; eta bigarrena, Greziara iristen diren errefuxiatuei laguntzea.

### 3. Zer gertatzen da orain errefuxiatuen gaia komunikabideetan hainbeste ikusten ez dugunean?

Jende asko ez dela kontziente zer ari den gertatzen; beraz, ez dute hainbeste laguntzen.

### 4. Zein da Lesboseko errefuxiatu-zelaiaren egoera?

2.500 pertsona egon beharreko lekuan, 10.000 errefuxiatu daude. Orain, neguan egoera kaskarragoa jasango dute.

### 5. Euskal Herrian borondatezko lana egiten dugu?

Bai, asko laguntzen dugu. Oraitzen hitzetan "elkartasun herria" gara.

## 3- Testuaren lanketa

Bizkarrezurra: Proiektuaren muina edo ardatza boluntarioak direla esan nahi du.

Uholdea: Errefuxiatu kopuru izugarria iristen dela adierazten du.

Bozgorailu: Elkartearen lana errefuxiatuen ahotsa izatea eta haien egoera zabaltzea dela adierazten du.